



## Andoaingo Udala

### ALKATETZAREN EBAZPENA

Andoaingo Udalaren eta Ondarreta Herri Eskolaren arteko funtzionamendurako oinarrizko arauen proposamena ikusirik, 2026. urteko mantenimendu eta funtzionamendu gastuak finantzatzeko.

Hezkuntza eta kultura Teknikariaren txostena ikusirik.

Ikusirik, udal Kontuhartzaileak egindako kontrako txostena.

Ikusirik, udal Idazkariak egindako kontrako txostena.

Horrenbestez, agiri honen bitartez, ondokoa

### ERABAKI DUT

1.- Onartzea, Andoaingo Udala eta Ondarreta Herri Eskolaren artean proposatutako funtzionamendurako oinarrizko arauen hitzarmenaren sinadura, zeinak honako ezaugarriak izango dituen.

**Xedea: Ondarreta Herri Eskolako oinarrizko arauak mantenimendu eta funtzionamendu gastuak finantzatzeko.**

**Dirulaguntza: 28.604€.**

**Partida: 1.0500.481.320.00.01.2026 (375)**

**Indarraldia: 2026-01-01tik 2026-12-31ra.**

2.- Hezkuntza eta kulturako jarduneko zinegotzi ahaldunari hitzarmen hau sinatzeko ahalmena ematea.

3.- Ondarreta Herri Eskolari bidaltzea hitzarmena, Hezkuntza eta kulturako zinegotzi ahaldunak sinatuta.

4.- Funtzionamendurako oinarrizko arauen laugarren hitzbaketan azaltzen denaren arabera, Ondarreta Herri Eskolarentzat 2026. urterako Udalak kontsignatuta duen diru kopurutik, hau da 28.604€, %60 ordaintzea dokumentua sinatutakoan udal aurrekontuaren 375 zenbakia duen diru kontuaren kargura.



## Andoaingo Udala

---

5.- Ebazpen hau Ondarreta Herri Eskolari eta udal Kontuhartzaitza lansailari helaraztea.

Erabakia Udaleko idazkariaren aurrean sinatu eta bete dadin agindu dut.

Andoainen, sinaduraren datan.

Nire aurrean,

IDAZKARIA

ALKATEA

